


## Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren astea Mondragon Unibertsitatean

2014/11/17

Etorkizuneko ikasleak, zientzia eta teknologiarantz gerturatu dira, campus bakoitzean antolatutako ekintzetan parte hartuz. Arrasateko campusean esaterako hainbat arlotako tailer eta laborategietan parte hartu izan dute: haize-tunela, mekanizatua, energia, diseinua, antolakuntza, elektronikak eta IKTak.



Donostialdeko campusean, Orona Fundazioa eta IK4 IKERLANekin batera, ekoingenieritzekin zerikusia duten hainbat tailer antolatu izan dira. Tailer hauetan honako gai hauek landu dira: energia berriak, materialak eta prozesu berriak, energiaren transferentzia...









